

GREBA FEMINISTARAKO DEIALDIA

Zuloaga plazan mosaiko erraldoi bat egingo da, komunikabideen aurrean martxoaren 8an grebara deituz. PARTE HARTZERA ANIMA ZAITEZ!

Ordua: 11:00

Tokia: Zuloaga plazan (San Telmon)

Antolatzailea: Donostiako Asanblada Feminista



HETEROPATRIARKATU KAPITALISTARI PLANTO

Bost ardatzetan oinarrituko da greba: *Pentsionistak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa.*

Bizitzak Erdigunean!!!

Greberen inguruko informazio gehiago:
<https://grebafeminista.wordpress.com>

eguerdiko 12:00etan
EKITALDIA Bulebarrean

Arratsaldeko 19:00etan
MANIFESTAZIO ANTIGUOTIK abiatuta

* Auzoetan ere antolatuko dira ekintzak. ADI EGON!

LILATON - 30. urteurrena

6000 Emakumetik gora korrika Donostiako kaleetan zehar

Ordua: 10:30

ZINEFORUM FEMINISTA

Ordua: 19:00

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

DONOSTIAKO AHOTS MOREA PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Donostiako emakumeen lana ezagutarazteko proiektua da "Donostiako AhotsMorea". Proiektuaren nondik norakoak azaltzeaz gainera, **Elbira Zipitriaren** ibilbidea aurkeztuko dugu

Ordua: 19:00 - 21:00

Hizlaria: Idoia Etxeberria

hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

NEOESTRAKTIBISMOA ETA PATRIARKATU KOLONIALA: HEGOALDEKO FEMINISMOAREN BEGIRADAK EZAGUTUZ

Abya Yalan (amerikar kontinentearen antzinako izena) sortzen diren hegoaldeko feminismo desberdinen argudioak eta beharrak ulertzeko oinarritzko elementuei buruz hitz egingo dugu. Hegoaldeko feminismoen testuingurua landuko dugu, emakume indigenen eta jatorri afrikardunen mugimenduak oinarri harturik; hegoaldeko feminismoen, mugimendu ekologisten eta lurralde kontzeptu desberdinen artean dauden lotura teorikoak aztertuko ditugu. Hegoaldeko feminismoen pista metodologikoak sentihausnartuko ditugu, emozio eta gorpuztasun desberdinak landuz. Gorputza-lurraldea eta gorputza-lurra konstruktuan eta gorputzaren kartografietan sakonduz.

Hizlariak:
"Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo" kolektiboko **Alicia Isabel Migliari González** eta **Delmy Tania Cruz Hernández**.

Ordua: 19:00

Hizkuntza: Gaztelania. Aurkezpen elebiduna

Informazio gehiago: <https://territorioyfeminismos.org>

Antolatzailea: SETEM + Emakumeen Etxeko Ekofeministak



KOMUNIKAZIO HERRIKOIA FEMINISTA: ESANAHIAK ETA ERANTZUNAK ELKARREKIN SORTZEN

Pertsonen arteko komunikazioen hainbat egoeretan (bai lanean, bai etxean, lagun artean edota kalean...) emakumeok, bakoitza gure ezaugarri eta testuinguruaren arabera, deseroso sentitu gara. Beste emakume batzuekin batera, horietako hainbat egoera zehatz identifikatu ditugu eta elkarrekin erantzun alternatiboak, baikorrak, zehatzak eta proaktiboak sortzeari ekingo diogu. Zure ideiak, proposamenak, hitzak partekatu nahi, emakumeengandik berri ditzagun esanahiak eta diskurtsoak?

Ordua: 18:30 - 20:30

Hizkuntza: Elebiduna

Informazio gehiago: info@sorginlore.eus

Antolatzailea: Sorginlore Gizarte Elkartea
Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

AUTODEFENTSA FEMINISTA



Ordua: 10:30 - 14:30 eta 15:30 - 19:30

Irakaslea: Isa Bernal

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

“A LA CONQUISTA DEL CUERPO EQUIVOCADO”, MIQUEL MISSÉ (Editorial Egales, 2018) Liburuaren aurkezpena

Transexualitatearen inguruko kontakizun ohikoenak dio arazoa gure gorputzean dagoela eta horren konponbidea gorputza eraldatzea dela. Beste ahots batzuk, ordea, galdera berriak irekitzeko altxa dira, kontakizun hori zalantzan jarriz: eta gure minaren jatorria ez balego gure gorputzean? Kasu horretan konponbidea ere ez litzateke gure gorputzak eraldatzea... Galdera hauei erantzuna topatzea ariketa kolektiboa da, hamarkadatan zehar garatzen ari dena. Miquel Misséren liburu berria ariketa kolektibo horren parte da ere. Trans pertsonen minaren jatorriaren inguruan dagoen eztabaidaren parte izan nahi du, “oker dagoen gorputzaren” diskurtsoa alboratu eta beste bat ekartzeko. Beste era batera, gureak ziren gorputz horiek, “oker zeudela” esan ziguten horiek, berriz gureganatzeko ahaleginaren parte da.



Miquel Missé (Bartzelona, 1986) soziologoa eta trans aktibista da. Gaur egun aholkulari eta hezitzaile independente bezala lan egiten du, genero eta sexualitate aniztasun politiken baitan, hala nola kultura trans kritiko eta anitzen defentsan. Horretaz gain ikerlari gonbidatu bezala jarduten du Vic-eko Unibertsitatean, genero eta sexualitate aniztasunaren inguruko ikerketa lerroan.

Gerard Coll-Planasekin batera *“El género desordenado: críticas en torno a la patologización de la transexualidad”* (EGALES: 2010) argitaratu du eta baita *“Políticas trans: una antología desde los estudios trans norteamericanos”* (EGALES: 2015), Pol Galofrerekin batera. *“Transexualidades: otras miradas posibles”* (EGALES: 2013) liburuaren egilea da halaber.

Ordua: 18:30

Hizlaria: Miquel Missé

Hizkuntza: Gaztelaina

Organiza: Emakumeen Etxea Elkartea

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA PROGRAMA MARTXOA 2019

okendo 9
20004
donostia

